

Jesus Alzelai "Muñeko"

Estatu Batuetan, Idahon hain zuzen, 20 urte daramatzen oñatiar hau ia urtero etortzen da Euskal Herrira. Aurten herriko jaixak harrapatu nahi izan ditu eta guk bera harrapatu dugu elkarrizketa hau egiteko.

- Noiz joan zinen Estatu Batuetara?

1975. urtean, urriaren 10ean konkretuki

Jakingo duzueenez, Oñatira iparra-merikar asko etorri zen garai batean. Gaur egun Donostian izaten diren programei 1974.ean eman baitzitzaion hasiera Oñatin.

- Nork antolatu zituen programa horiek?

BSU (Boise State University) eta Ion Oñatibiaren artean antolatu zituzten programak, baina, lehenago, 1972an, Boisen egona zen Oñatibiaren bitartez hango euskaldun taldetxo bat ere etorri zen Arantzazura.

- Zernolako harrera izan zuen talde horrek Oñatin?

Egia esan, hasiera batean jendeak nahiko hotz hartu zituen. Komentario franko entzuten zen herrian: drogan sartutako talde bat zela eta desintoxikatzeraz etorri zirela Oñatira; CIA-ko jendea zela...

Baina poliki-poliki harremanak sortuz joan ziren, taldeko batzuk Alejandro Irizarrekin hitzegin eta dantza entsaioetara joaten hasi zirenetik.


- Zuk ere orduan ezagutu zenuen zure emaztea?

Bai, Tammy Atxurra ere programarekin etorri zen. Bere aitona Aulestia-koa zen eta amona, berriz, Laidakoa, beste euskaldun asko bezala, gaztetan Estatu Batuetara lan bila joandakoak. Beraz, Tammy bere sustraiak ezagutzeko asmoz etorri zen hona.

- Tammy ezagutu zenuenean, non ari zinen lanean?

Ni orduan Donostiako Hotel Londresen nengoan sukaldari ikasten. Tammyk asko animatu ninduen Boise-ra joateko, sukaldari bezala aukera onak izango nituela esanaz. Eta horrela joan nintzen, hasiera batean denboralditxo baterako besterik ez.

- Denboralditxo hori asko luzatu da, ezta?



Jesusen jatetxetik famatu asko pasatu da: Iñaki Perurena harri jasotzailea, Ardanza lehendakaria eta Charlton Heston aktorea, besteak beste

Bai hara joan eta ezkondu egin nintzen. Gainera gazte sentitzen zarenean, toki berrietan ere gustora egoten zara.

- Zertan egin zenuen lana?

Eskaintza pilotxo bat izan nuen. Sukalde internazionala momentu hartan oso estimatua zen eta Hotel Londresen ikasitakoak asko lagundu ninduen. Lau urtetan Club pribatuetan jardun nuen sukaldari-buru bezala.

Ordurako Xanti, nire seme zaharrena, jaioa zegoen.

- Lau urte ondoren Euskal Herrira bueltatu zinen.

Bai Lekeitiora etorri ginen emaztea, semea eta hirurok. Bertako Night Club baten sozio nintzen orduan.

Lekeition Aitor, nire bigarren semea, jaio zen eta berriro Ameriketara bueltatzea erabaki genuen.

- Hara itzuli zinen, zertan ari zinen?

Urte horietan toki batetik bestera ibili ginen *Red Lion* izeneko hotel-kate batentzat lanean. Horietako baten 60

sukaldari geunden.

1981ean eta 1982an Idaho estatuan *Red Lion* kateko bi hotel irekitu eta handik Nevadara joan nintzen kate honen lehenengo kasinora irekitzera. 1984ra arte Idaho eta Nevada egon nintzen *Red Lion*-eko begirale gisa.

Nevadan nengoela, nire emaztea rengandik bereiztu eta bi semeekir gelditu nintzen

Nevadatik Spokane-ra bidali nintzen eta han hiru urte pasa nituen.

- Nola konpondu zinen lan egira eta bi semeak zeuk bakarrik zain- tzeko?

Urte gogorak izan ziren haiek niretzat. *Red Lion*-ekoei eskatu nien Boise-ra bueltatzea, nire emaztea izandakoaren gurasoen laguntza izango nuelako. Eta horrela Boise-ra bueltatu nintzen. Gerora eskaini zidaten Kalifornian, Disneylandia ondoan beste hote bat irekitzea, baina eskaintza ez nuen onartu, nik neure jatetxea irekitzeko gogoia buruan bueltaka aspalditxoan nuelako.

- Noiz ireki zenuen jatetxea?

1987an. Boisen euskal jatetxe aten beharra zegoela ikusten nuen: 1960ra arte bazeuden hiru edo lau *boarding house* edo euskal ostatuak ta artzain euskaldunek, menditik jais- en zirenean, hauetara jotzen zuten; 1945etik ere Euskal Etxea badago Boi- en baina ez da jatetxea.

- Zer izen du zure jatetxeak?

OÑATI du izena. Ni hemengo iza- eaz gain badago beste arrazoi bat ten horrentzat. Oñatin egon zen *Ida- o* izeneko dantzalekura sarri joaten lintzen eta polita iruditu zitzaidan *Ida- on Oñati* izeneko jatetxea irekitzea.

- Zer eratako janariak eskaintzen dituzu?


Euskal Herrian tradizioz ezagunak an diren janariak prestatzen ditut an, txikitatik amaren sukaldean ikusi an ditudanak. Lehen aipatu ditudan *boarding house*tan artzainek jaten ututen eran prestatzen dut jana. Hango euskaldunek oso gustoko dute babak, mildotsa, solomoa, kroketak. "Family style" bezala ezagutzen da han dene- atik eta ugari zerbitzeko era.

- Jatetxetik kanpo ere zerbitzen emen duzu...

Bai, ez gara mugatzen jatetxe arruko eskaintzara; bankete asko zerbitzatzen ditut kanpora, 25etik 600 lagun artekoak. Euskaldunen bat ezkontzen denean, gonbidapena han- o euskaldun jende guztiari zabaltzen da eta 300-400 gonbidatuko ezkon- zak normalak dira han.

- Amerikarrek gustukoa al dute emengo janaria?

Badakizue amerikarrek ez dutela enbora askorik pasatzen sukaldean ta gure jatetxean aurkitzen dituzten



Euskal sukaldaritza oso gustukoa dute amerikarrek.

janari gozoak benetan apreziatzen dituzte, baita zerbitzeko eta janaria prestatzeko era.

- Sukaldari bezala sariren bat edo jaso omen duzu...

1993.ean Mendebaldeko sukaldari onena aukeratu ninduten. Sari hau 13 estatuen artean banatzen da, eta nire- zat hau oso garrantzitsua izan zen.

Sarietaz gain Estatu Batuetako bi aldizkari handietan egin didaten elka- rriketek ere asko balio izan didate.

- Jatetxea alde batera utziz, badakigu Boisen Euskal Kultura mantentzeko lanean hainbat talde daudela. Zuk parte hartzen al duzu horietan?

Noski! Hara joan nintzenean, nire etxeko jardinean gazte talde bati Oña-

tiko dantzen lehen pausoak irakatsi nizkien, Alejandro Irizarren baimenare- kin

Aurrerago San Iñazio eguneko mezan dantzatzea pentsatu genuen eta gaur egun tradizio hori oraindik mantentzen da. Esan behar dut Jesus Irizar izan dela benetan talde honen maixu, handik etorri izan diren gazteei berak irakatsi baitzkie herriko dantzak

Boisen badago *Oinkari* dantza tal- dea eta *Bihotzetik* abesbatza. Oinkarik 1988an Euskal Herrira egin zuten bidaian Oñatiko plazan ere eskaini zuten emanalditxo bat.

Euskal Etxea, Pilotalekua eta Eus- kal Museoa ere baditugu. Museoan lan handia egiten da gure kultura zabaltzeko: Liburutegia handitu dute, euskarazko klaseek gero eta jende gehiago biltzen dituzte eta Euskal Herriari buruzko informazioa eskaini- tzen ahalegintzen dira.

- Beraz euskaldunek badituzte biltzeko tokiak...

Bai. Euskal Etxean maiz biltzen da jendea musean edo kontu kontari, bai- na batez ere adin batetik aurrerakoak.

Bestalde, orain dela 5 urte beste taberna bat ere ireki zen *Gernika* ize- nekoea eta honek bizitasun handia sor- tu du amerikar euskaldunen artean.

Taberna honetako paretak *Oñatz* dantza taldeko argazkiz josiak daude.

- Zer egiten dute talde hauek Euskadirekin harremanak sakon- tzeko?


Talde hauek lan handia egiten dute baina, esan behar da, Euskal Komuni- tatean garrantzi handia duela bost urtetik behin ospatzen den Euskal Jaialdiak.

Jaialdi horretara hemengo jendea gero eta gehiago joaten da, han fami- lia dutenak, lagunak eta euskal musi- kari, bertsolari, dantzari, harri jasotzai- leak.

- Hemendik joaten al da jende gaztea Boiseran denboralditxoak

Gure herrian izan diren euskal amerikarrek eta Jesusen jatetxeak Oñati ezaguna egin dute Idaho estatuan.

Etxe-Aundi
jatetxea



Torre Auzo, 9
Tfnoa: 78 19 56 OÑATI



MIZKE

Gozotegia

- Gozoki eta fruitu eiharrak
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3
Tfnoa: 78 28 14